



BANDOA

Ikusita urteko zer sasoitan gauden eta kontuan izanik sastrakak eta uzten hondarrak erre eta aisialdi-xedez suteak pizten direla, honela jakinarazten da:

1.- Gipuzkoako Mendien urriaren 20 7/2006 Foru Arauaren 84.1 artikulua jasotakoaren arabera:

“ Jabetza publikoko edo pribatuko edozein finkatan nekazaritzako eta basogintzako praktika gisa sastrakak edo mozketen hondakinak erretzeko alde aurretik Baso Administrazioaren (Gipuzkoako Foru Aldundia) baimena beharko da, arauzko inprimakian igorritakoa. Baimen horretan jasota geratuko da zer baldintzetan erre eta zehurtziazko zer neurri hartu behar diren”.

2.-Halaber, argi geratu behar da guztiz debekatuta dagoela hiriko hondakin solidoak erretzea (papera, plastikoak...) hiriko zein landako zonetan.

3.- Txangozaleek finka publikoetan edo pribatuetan sua erabiltzeari dagokionez, Foru Arauaren 62. artikulua honela dio:

Txangozaleek ezingo dute surik piztu horretarako prestatuta ez dauden zonetan. Edonola ere, debekatuta dago sua piztea egoera meteorologiko txarretan (haize bortitza eta lehorte-denboraldi luzea).

4.- Halaber, arau-hausteen inguruan honela jakinarazten da:

Arau-hauste larritzat joko dira erreketak eta baimenik gabeko suaren erabilpenak, basoan sutea eragin dezakeen ekintzak eta omisioak (prebentzio-neurriak ez hartzea barne) eta sutea behin hasita dagoenean ez ohartaraztea.

Arau-hauste larriak 1.001 eurotik 100.000 eurora arteko isunekin zigortuko dira, eta, horrez gain, kalte-ordainak eska daitezke ondare publiko zein pribatuetan eragindako kalteengatik edo galerengatik.

5.-Hori guztia arduradunek eduki ditzaketen zigorerantzukizunak alde batera utzita. Ekintza horiek zigortuta daude Zigor Kodearen suteei buruzko (azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa) 351. artikuluan eta hurrengoetan.

Eta horrela jakinarazten da hori guztia.

BANDO

Teniendo en cuenta la época del año en que nos encontramos y produciéndose quemas de maleza, trastrojos y encendido de hogueras con fines recreativos, se pone en general conocimiento lo siguiente.

1.- Que de acuerdo con lo dispuesto en el art.84.1 de la Norma Foral de Montes de Gipuzkoa 7/2006, de 20 de octubre :

“ La quema de maleza ,matorral o restos de corta como práctica agroforestal , en cualquier finca de titularidad pública o privada deberá contar con la autorización previa de la Administración Forestal (Diputación Foral de Gipuzkoa) expedida en impreso reglamentario , que indicará las condiciones en las que habrá de efectuarse y las medidas precautorias que habrán de tomarse.”

2.-Así mismo debe quedar claro que queda estrictamente prohibido la quema de residuos sólidos urbanos (papel, plásticos...) , tanto en zona urbana como rural.

3.- En cuanto a la utilización de fuego por parte de excursionistas en fincas pública o privadas , de acuerdo con lo dispuesto en el art.62 de dicha Norma Foral :Está prohibido encender fuego por parte de los excursionistas fuera de las zonas preparadas para ello. En todo caso , está prohibido

encender fuego en supuestos de circunstancias meteorológicas adversas (fuerte viento y periodo largo de sequia).

4.- Así mismo se hace saber que en materia de infracciones :


Que es infracción grave las quemas y uso del fuego sin autorización y cualquier acto u omisión del que se pueda derivar un incendio forestal , incluida la no adopción de medidas preventivas , así como no avisar una vez iniciado un incendio.

Las infracciones graves son castigadas con multas de 1.001 a 100.000 euros, sin perjuicio del pago de indemnizaciones por daños o perjuicios , tanto en bienes públicos como privados.

5.-Todo ello, sin perjuicio de las posibles responsabilidades penales en que puedan incurrir los responsables de los mismos castigadas en los arts. 351 y siguientes (De los incendios) del Código Penal (Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre).

Todo lo cual se pone en general conocimiento.

Irura, 2017ko Uztailak 14ean



ALKATEA